

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Miren Uriarte Eizagirre*

*Oñati, Gipuzkoa  
(1934-2021)*

Aurkibidea



## Biografia



Araotz auzoko Errekatxiki baserrian jaio zen 1934an. Bizimodu gogorra izandakoa da umetatik, aita kartzelan izan zutelako denbora luzean eta 6 urte zituenean ama hil zitzaielako. Bera eta anaia gaztea ospitalean hazi ziren, harik eta aita bigarren ezkondu zen arte. Ama gaixorik zegoela, Zumarragan bizi izan ziren denbora batez. Gerora han eta hemen ibili zen neskame, esaterako, auzoko Gerneta baserrian. "Ara(o)tzurruti" auzuneko Amiamena baserrira ezkondu zen eta 4 seme-alaba izan zituen.

## Zintak

### ONA-056

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-12
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV

### ONA-057

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-12
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

### ONA-114

- **Proiektua:** Gerra Gogoratu Guran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrazola, Nekane - Etxeberria, Idoia - Garai Bengoa, Juan Ramon
- **Data:** 2010-02-20
- **Iraupena:** 86 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

### ONA-320

- **Proiektua:** Irati Goitiaren fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goitia, Irati
- **Data:**
- **Iraupena:** 33 min

- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Sagarzazu Sacristan, Arantzazu

## Pasarteak

### 1. Miren Arantza edo María Aranzazu

- **Erref:** ONA-057/003
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:03:12. **Bukatu:** 00:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

#### Laburpena:

Euskal izena ez zioten onartu erregistro zibilean.

#### Transkripzioa

- Beziñua ebillen hemen, Errementeriko Jose Luis difuntua edo zera ikasten, hau, abogau edo ikasten. Aurretik erlijiosotarako egon zan eta gero por libre edo ebillen abogautarako gure Errementerikua ta harek in otsan gestiñua edo lanok itxuria. Bixak ziran euskaltzale amorratuak, nere ama be bai, eta Miren Arantza ifiñi otsain papelian izenori, ta hala in euen hareik, Miren Arantza, ta gero han ametiu ez, leheningo ifiñi bai, baiña handik zera atara nebenian, hau seguro sozialeko papelak itteko atara nebenian, han ikusi neben zeori, partida de nazimientuko zeori. Orduan papeleri artian ondo aprobetxaitten zan, alde bittatik eskribiuta. Ta zera, borrauta eta atzera azpikaldian María Aranzazu ipiñitta. Miren Arantza borrauta, kenduta. Ta bi edo hiru buelta in bihar izan zittun Jose Luis horrek, Miren Arantza ipiñi bi(har) zala eta ez zala.

- Baiña Miren onartu in euein, e?

- Ez ba!

- Miren be ez?

- Miren ez, Arantza bai, Miren Arantza nola Arantza zan, baiña gero Aranzazu, Miren Aranzazu.

- Baiña María Aranzazu...

- Bai ba, María Aranzazu gero, ez euen hartu, ez euen; ha in ebelakuan etorri zan, baiña gero ez osten ametiu, ta "en cambio" elizan María Aranzazu dakot, leheningotik ifiñi nostain, elizan bautismuan, María Aranzazu neuken. Baiña juzgauan, klaro, hara fan zan zera ittera, aittan lekuan hori mutillori, Gernetako Filomenaren nobixua izandakua, gero ezkondu zan beste anaiakin baiña, eta retxazauta neukela zeori, Miren Arantziori. Oin neri betik Miren esan xostai hemen, e!

### 2. Ospitaleko bizimodua; "Neskapasauak" eta "andra-neskak"

- **Erref:** ONA-057/005
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:07:28. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

### Laburpena:

Ama galdu zuenean Ospitalean egon zen bere anaia txikiarekin bizitzen. Eskolak ere jaso zituzten bertan. "Neskapasauen" umeak ere eramaten zituzten Ospitalera. Mirenek bere bizitzan lau emakumeri "ama" deitzeko aukera izan du.

### Transkripzioa

- Eta Ospitalian mojakin egoten ziñazien, ezta?
- Bai, mojakin.
- Moja asko zeguan edo...?
- Orduan bai, beratzi edo b(a)eozen, han geixueri atendituko eta eskolia emuten euen, beratzi moja edo.
- Eta Ospital hori izaten zan etxerik ez eukeiñentzako ta... ?
- Herriko nezesitauendako ta ba kanpotik be, beste leku batzutatik be han por ejemplo, neurekin bat egon zan mutikotxo bat Donostiakua zana, ama solteria euken baiña ama sekula ez zan etorten; Moreno euken apelidua, Segundo Moreno, ta ama sekula ez zan etorten, guk ez geben ikusten. Etorri ingo zan igual, ta egon zan denporalditxo baten, baiña bera Donostiakua zala esaten euen, eta klaro, lehen esan gebena, neskapasauak izaten zien lekuetatik umiak eruan itten zittuein ba beste leku batzutara, ta holakon bat izango zan ha be. Moreno hori, gero eruan euela, gero akordauten naiz zela eruen euen.
- Bai eta, neskapasauena aurrekuan komentau geben, badakitzu zer dan neskapasaua?
- A neskapasaua?
- Ezkondu barik haurdun geraketan dan andria. Eta gero umia eukitten dauenian zela esaten xaue horreiri? Ez da andra-neskia?
- Andra-neskia izango da. Hori izan leike, andra-neskia, baiña aurretik ba horixe, neskapasaua. Famelixia euki dauenian neskia neskatik pasauta, neskapasaua. Hori ondo esanda dago egon, neretako, neskapasaua.
- Orduan solteratan haurdun gelditzen zianairi esaten...
- Neskapasaua.
- Eta gero eukitten euenian umiori aitta barik, orduan ya andra-neskia.
- Andra-neskia. Klaro, andria, neskia, ezkondu barik euen.
- Eta orduan anaia ta bixok egon ziñazien han, ezta?
- Bai, bai, atzera berriro aitta ezkondu arte.
- Eta zela egoten ziñazien, neskak eta mutillak aparte egongo ziñazien eta...
- Ba anaia txikitxua zan eta holaxe, illara baten egoten giñan neskatillak eta bestekaldian mutikuak eta, hori komedorian andrak alde batian eta gizonak bestian, komedoria haundixa zan, ez hola mahaitxuetan eta mahaitxuetan, e? "En fila", fila indian danok, erdixa dana libre, eta habitaziñuetan be bai, kriston [...] orduan ez xauan kalefaziñorik eta puñetarik, a ze hotzak pasauten gittun, etxetzar horreik, zera, Ospital zaharra. Han nik ez dakit zenbat lagun egongo giñan, baiña bastante, bastante jente egoten giñan, akordauten naiz ni, ta gaixuak be egoten ziran batzuk uhera dana, ohia in bihar izaten xatenak eta mojak, berriz, euren lanak eukitten zittuen. Bat enfermera lanak itten ebena zan, baiña eskolia emuten eben. Gero "Madre superiora" esaten gotsana ha berriz, ni egon nintzan denpora dan-dan-danian bat egon zan, sor Aurelia Garaikoetxea naparra, neretako ona izan zan. Nik lauri esan dostet "ama", lau personari: nere amari "ama"; horri monjiorri, sor Aurelia Garaikoetxea horri be "ama", "madre".
- Horri erderaz, "madre".

- Erderaz: "madre". Gero aitta ezkondu zan atzera ta hari be "ama"; gero neu ezkondu nintzan hona eta hemenguari be "ama" esan xat. Lau emakumeri "ama" esan dostet nik, ta neriaena ba gutxi, zeozer bai badakot, sei urtetik suerte haundi barik hil xaten neri ama eta, ba, badakizu, sei urteko personia ta artian ez dakuei gauza danak goguan geldiketako abilidadiori. Oin gauza asko, ba, bai, badakot, geldittuta dakot, "en cambio" nere anaiak ez, nere anaiak, ta betik euki eben bere penatxua, amaren hori abozori eta ez eben ezaguketan; "Hik sikiera amen berbia ezagutu hunan, nik haxe be ez".

### 3. Umetan sukaldari

- **Erref:** ONA-057/006
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:12:08. **Bukatu:** 00:16:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

#### Laburpena:

Mirenek 6 urte zituela, ama gaixorik zegoen ohean eta berak egin behar izaten zituen erosketak eta etxeko lan batzuk. Oilarrarentzako zaperoa ere jan izan zuen bere anaiarekin batera.

#### Transkripzioa

- Zenbat gaztiaua esan dozu dala?

- Hogeit hillabete da ni baiño gaztiaua zan bai, urte bira ez zan allauten.

- Harek lau ta erdi edo hola eukiko zittuan, lau urte eta erdi edo?

- Bai, bost in baiño lehenao behintzet, bost in biharko zittun nere anaiak maiuan eta ama hil zan marzuen, ta nik sei urte indda neuken setienbrin eta ama hil zan hurringo marzuan, ta hurringo setienbrin ingo nittuan nik zazpi.

- Eta aurrekuan kontau zendun hori, ama gaixotu zanian zeuk in bihar izaten zenduzela...

- A, bai, ene, ene! Akordauten hasitta be, "desde luego", sekula ahaztuko etxatena da Zumarragan, lehen esan dotsuet ezta? Zela egon giñen baserri baten? Ta amak uhetik aginddu: "etorri zatez hona ta fan" ta amak aginddu lanak zela in. Kalera fan, eta ez euen urrin, hortxe Aizpurutxuko, Aizpurutxura bidia hartzen dan lekuen baserri bat, ta handitxek kalea bidien, ibillera luzia ez zan baiña bai, fan bihar izaten zan kalera ezer bihar bazan. Ogixa, ardaua eta okelia eruan bihar nittun, hiru erreka horreik, eta eruan nittun eta eruan nittunian itxi nittun sukaldeko mahaixen gaiñian. Ta ama euen goixan, habitaziñuan. Onddiok ekusten dot eskillara zahar-zahar batzuk zien, "ti-ta-ta" igo neben ta ama, ta zer, ta "In bihar dozu /bihozu/ beheko sua, lapikua ifiñi" eta aginddu nontan zela in zeori, lapiku ifinttiori. Eta behera fan orduko ahaztu amak ze esan nontan, lehenengo ze in eta gero ze in, bueltaka eta bueltaka ebaliko neben buruan bai ta atzenerako ahaztu sei urteaz, eta banoia atzera amari preguntau eta ze esan nontan, hor ikusten dot katua, nere okeli horreaz ittuako atepetik aurrera. Nik in nittun negarrak, nik in nittun negarrak, onddiok sentiuten dot orduentxe letxe! Eta esan nontan amak esan nontan: "Ume, etorri hona! Aiba dirua, fan eta ekarri berriz be okelia". Ez nontan ez berriz harrapo katu horrek okelia neri, handik aurrera banekixen nik zer egin. Eta hori dakot goguan. Onddion Zumarragako primiari esaten xaot eta, hareik egozen ba han eta hareikin batera... Ha ni baiño urtebete

zaharragua zan ta ha eskolara faten zan; eta beste primia, berriz, geruao jaixotakua. Ta harek esaten dau, han mutilzahar batena zan ba hori etxiori, eta euki eben ollalokia txittakin ta ittuako atia zarrauta eukitten eben, kordel bateaz ha lotu-lotu indda goixan. Baiña ni gu hara ez giñan allauten, baiña ollalokiori izten notsan zaperua, zuk badakitzu zer dan zaperua, artorunakin zaperua indda izten notsan holako soldau platu zahar baten, soldauak lehenao ebalten zittuen platua hola gerrixen lotuta txapazko edo aluminio holako itsusi bat, eta holako plato zahar baten zaperua indda. Horrek primiorrek esaten dost: "Ene, eskerrak haretxei zaperuei!" Ha mutilzaharra faten zanian "nos poníamos las botas tú y yo con el zapero". Ha be jatekua. Zuk morokilla eta ez zittun ezagutuko?

- Ez, ez, entzunda. Egositta, ezta?

- Bai, egositta ta, hori eukena ondo, e? Esnie eta morokilla ta eukena ta ondo. Bueno!

#### 4. Ogi gosez

- **Erref:** ONA-057/007
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:16:23. **Bukatu:** 00:19:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

#### Laburpena:

<p>Gose denboran ogia lortzea ez zen batere erraza. Txitentzako zaperoa janda ere pozik egoten ziren.</p>

#### Transkripzioa

- Nik gure aitta difuntuari entzunda dakot, hor egon giñan bittartian, eurak lanetik etxera fan da klaro, ogixa falta, ta klaro ogixa, ta nere anaia mutiko txikixa ta harek ez ebela konpreniuten. Enda ogixa ta ogixa ta ogixa, ixilddu be in barik ogixen eske, mutikuori. Ta esaten xao nere aittak nere amen anaiari, anae-arrebak ziren, esan xao, Jesus zan, eta esan xao: "Hi, Jexux, bixar eguaikutza dok, argi egon, hemen labe-sua ingo dok bai baserriren baten, eta labe-su keia nun urteten dan, argi egon, e? Ogixa zuzenduko xuagu eta". Egon dira, "hantxe be bai eta holakoxe lekutan be bai, urten xok gaur labe-su keiak, horreik etxe bi horreittan labe-sua indda xaok gaur. Goazen bixok, aide". Fan dira ta illunduta, jo daue atia ta errosarixua errezaute barruan. Urteten doste andriak, aber ze bihar dauen ta ba labe-sua in dauela, ta "Labe-sua, bai, in deu". "Ba guk ogixa hartuko geke bai", "Baiña guk ez dogu ogirik saltzen" andrionrek. Eta "Ez dozuela ogirik saltzen? Ba guk derrior bihar dou /bihu/ bai, gaurkuan salduko doskuzue ba", baiña "Ez, ez, ez, nik ezin det ogirik saldu, gu geok jente asko gare ta", andrionrek. Eta itxuria bastante tardau itten euen, "ez-ez-ez" ta "bai-bai-bai". Gizona barrutik: "Ze pasauten da hemen?", ta "Gizon hauek etorri die ogie falta duela ta, ogie umentzako, umek gosek dauzkela eta aber eramaten duen ogi pixka bat, baiña nik esaten diet geontzako nehikua ez daukagula geok eta". Gure aittak atara karteria eta da! dirua. Han be dirua falta itten itxuria, dirua ikusi ebenian gizon horrek: "Bueno, emakumia, gaurkuatik emun xesu". Nere aittak dirua emun otsanian gizon horrek hartu diruori eta andrionrek ekarri ta hareik etorri zien perikuak, beheko baserrira biña ogiaz. Hareik gero umiak jan xuein nehikua ogi, ta klaro, gurasuak sufriuko euen umiak ogixa ta ogixa ta ogixa eske ta berak esaten ebena, Rosariok esaten ebena: "Neoni ere akordatzen

naun horreaz! Neoni ere akordatzen naun zela aita zanak-eta ekarri zuen ogie! Baiña gu, "tú y yo y Alejandro" -beste hospiziano edo b(a)euen bat eta- "y Alejandro cuando se iba" -haik erderaz samurrao itten daue ba, euskeraz aldien ba- "cuando aquel se iba nos poníamos las botas con el zapero". Zaperua jan ta aurrera, txittak jan biharrian zaperuori. Hareik urtiak gogorak izan ziren hareik.

## 5. Umetan erizain; garaiko janariak

- **Erref:** ONA-057/008
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:19:33. **Bukatu:** 00:23:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

### Laburpena:

Zumarragan bizi zirenean, eskolara joan beharrean ama zaintzen geratzen zen. Garai hartako jatorduetako janari asko gaur egun ez dira estimatzen.

## 6. Petrolio eskasia datorrenerako tresna zaharrak gordeta

- **Erref:** ONA-057/010
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:27:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

Gaurko ganbarak makinaz beteta daude. Petrolio eskasia garairako gordetzen ditu Mirenek uztarri eta golde zaharrak. Txoriak oso kaltegarri bihurtu dira nekazaritzarako.

### Transkripzioa

- Horixe pasauten da ba. Ta guk, neu esaten Araotzeko etxian, kaleko etxian dauen kamaria bageuko sikiera! Eske guk hemen honen parian hasi goixenetik eta barrenera, hau kamaria dana kamaria, etxe danian kamaria dakogu kamarak, baiña hango partia dana dakogu behikuloz beteta ta. Rotrabaktoria, tratore haundixa, txikixa, segadoria, eskuzkua, tratoriaz ibilttekua, boldia, burdixa... bueno.

- Lehen horreik danak honeikin itten zirala.

- Danak honeikin itten ziran. Hori esaten dau gure Estebanek esaten dau, hori ikusi zebe ba atzo, horrek, ta: "Ama, uztarrixa topauten hasi biharko zara". "Bai, bai, debittuko arkan xak bat, hantxe xaok sartuta bat". "Ta hasi biharko gara behixak hezitten, zeatik hurringo petroleorik ez dauela, gasoliñarik ez dauela, hasi biharko du boldan", "Ba bolda txikixak be hantxe xazek kamaran" esan notsan, bi, barreria be bai, aria be bai. Bestiak, berriz, Zumarragako primuari, Rosarion semiari, emun nitxan haize-errotia ta bolda haundixa ta horreik trabatik kentzeiatik.

- Gari ereitten ya ez gara hasiko, baiña...

- Bueno, garixa ereitten baldin badogu txorixendako lein dira, e? Hemen txorixak ez daue izten ezebe, ezebez. Guk hemen hor eskukada bi edo bota bai, adornurako edo hola zerien ifintteko oluak eta garixak eta hola

apurtxo bat hasi ziranian mamiñan formia eta hartzen eta bizarrak eta ataraten, egun bixan danak trillau ta kitto. Baneukan neuk ereindda adornorako ifintteko ta danak trillau. Txorixak ez daue izten oin hemen, bueno!

## 7. Putreak etxe inguruan

- **Erref:** ONA-057/011
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:27:49. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

### Laburpena:

Aldameneko baserri inguruak putrez beteta ikusi zituen Mirenek egun batean. Baserrikoek txerri bi hil eta atarian freskatzen utzita alde egin zuten etxetik, eta haien usainera hurbildu ziren putreak.

## 8. Putreak uxatzen

- **Erref:** ONA-057/012
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:34:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Natura » Fauna

### Laburpena:

Tiroa bota zieten etxe ingurura etorri ziren putreei, baina ez ziren asko urrundu. Miren joan eta putreak berari begira-begira zeudela, putreak uxatzen saiatu zen. Txakurrak ere hipnotizatuta zirudien. Txerriak esekita ikusi zituzten, baina etxean ez zegoen inor. Izu handia pasa zuen.

### Transkripzioa

- "Zer? Txapelenak txakonai bi txarri hildda hortxe bai eta atzenian buetrak jan bihar ostenai". "Nun xakon..."

- Sikaketan?

- "Nun xakonai ba?" "Hortxe bordepeian". Eta hutsa, geuk medikura fateko ordua xakonau ta urtenda bagaozen biharrao gazen". "Hor behiean zein xabin, ba?", hankak ikusten nittun han ittuako atetik pikupeien hankak harutz ta honutz ta, "Hor? Gure Antonio". In eben buelta batzuk; hor egon hari hola! "Tiratuxek tiruori!" Ta tiratu een tiruori Antoniorrek, ha zan buetra pillia, artaldia baiña hola haundixa, e? Danak "tiki-taka", "tiki-taka", patuan moduan. Hori etxe bixan bittartian dau pasua, hor urten eben buetriak, ta larrañian takata, txakurra be hipnotizauta letxe holaxe euen, eurei begira.

- Sustauta egongo zan.

- Bai, sustauta "completamente"!

- Txakurrentzako bitxo barrixak.

- Bai, txakurra euen holaxe, hipnotizautako moduan, ta teillatutik be holaxe begira ta neri be hola begiraketan nostain ta tirua entzun ebenian Frantziskak nola fan bihar euen medikuana, txandia hartuta eukein, aide fan zan. [...], "horreik badoiazela, Jose Ramon fan dok, honeik buetra zaharrok txarrixok!", hola fan hara eta amantala ointxe letxe, hauxe amantal hau, gaiñera, hola zaratia ataraten neu ta eskuan neuken batuta jerseixa, orratz bixak holaxe gora dittutela, hola astinketan amantaleri eta hor larrañian oin be hor egongo da, ez etxe aurrera eruanda da, euen zera, enpaketadoria, enpaketadorien gaiñian toldua, ta ha toldua zaratak ataraten eta zaratak ataraten ta hola nebillen eta etorten xat gero Estebanen semerik zaharrena, ointxe karneta etarata, aurreko egun baten etarata karneta, ta "Ene! Zeu etorri zara kotxian?" esan notsan. "Bai, ze pasauten da amama?" Ze ba? Ta txotxolatu in naizela pentsau eben harek. "Zetan zabitz ba?", "Ez (di)ttuk ekusten horreik?", "Ba nik horreik ikusi (di)ttut, baiña"... Ba harendako "como cosa normal" buetrok. Eta "Hola ta hola Frantziska Beittikuak esan xostak bi txarri dagozela. Fan zatez Goittikora aber iñor dauen hor". Fan zan ta tinbria jo eta tinbria jo ta, fan nintzan neu eta esan notsan: "Ez daue erantzuten?", "Ez", "Juana egongo da bakarrik. Goazen bixok aber ze txarri edo zer dauen hor". Fan giñan bixok eta han egozen txarri bi bordepeian esegitta txintxilis eta porru usaiña edo kipula usaiña eta ba txarri-lanak itten ibillittako moduko usaiña euen. Kotxe bat be han euen, txarrixak ekarteko karromatua be han euen, ta txarrixak txarri-lanetan ibillittako itxuria baeuen baiña iñor ez euen. Esan notsan: "Jo tinbria aber baten bat lo dauen hor, lehen ibilli diran txarri-lanak itten gabian ta aber oin lo dagozen". Jo tinbria eta jo tinbria eta nada. "Hemen ez xaok iñobe. Fan etxera eta ekarri eizu plastiko bat hantxe dago debittuko armaixuen gaiñian, komoda zaharren gaiñian, plastiko barri bat bai, eta ekarri eizu haxe, tapau behintzet in in biharko dittugu, horreik kapaz dia atzera etorteko hori buetra pillia, ta nola horreik buelua ezin dauen hartu zerian, ta nola pillan dabizen", harik eta hor gure etxeburuko zelaira puska bat zabaldu ziran arte ba, norberari atakauteko moduan, e? Emuten euen billurra eta dana ta, horreik ze ta, "fango (di)ttuk gura battuk", baiña nik esan notsan "itxi daigun bakian, gura dauena ingo xuai, tapau daigun txarrixak". Ta hori zan ba hamar ta erdixak, hamaikak bittarte hori.

## 9. Putreekin oroitzapen txarrak

- **Erref:** ONA-057/014
- **Iraupena:** 0:05:24. **Hasi:** 00:38:21. **Bukatu:** 00:43:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

### Laburpena:

Izu handia pasa zuen Mirenek putreekin eta oraindik ere ezin ditu ahaztu haien begiradak.

## 10. Gabon-batzea Araotzen

- **Erref:** ONA-057/015
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:43:45. **Bukatu:** 00:46:16

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

#### **Laburpena:**

<p>Putreekin sustoa hartu eta hurrengo egunean Gabon-batzea izan zen Araotzen. Lasaigarria eta hunkigarria izan zen Mirenentzat, aurreko eguneko gertakizunak pasatu ondoren.</p>

#### **Transkripzioa**

- Beste semiak esan nostan, Kepak-eta esan nostan: "Ze ama, ze eballi dozue hemen buetrakin?". "Ze eballi doten buetrakin esaten dozue? Holakorik pasau bihar xatenik be ez nixuan pentsauko sekula santa. Baiña hemen etorten danakin enfrentau bihar izaten dok bai eta hau ta hau pasau da, baiña uste xuat Hollywoodeko artistarik onenak be makiña bat ensaio ingo xuei, baiña hain ondo urteteko moduen in giñuan lana, "que a la perfección" urten xok gauziorrek, baiña buetrak por txurro ez xuein jan txarrixak". "Eta zeu han egon ziñan?", "Egon? Ni neu fan in nintzuan ikustera txarrixak, "lo que pasa es que" nik ez nekixan txarrixak nun egozen, nik pentsaitten nixuan ba nola dakon hola arkuia etxiak, han arkupeko zerian egongo ziela, baiña han ez egozen, egozen larrain azpiko bordepeian egozen, ertz-ertzian esegitta zeakin, honeaz, poleakin, ondo esegitta egozen haik". Eta, baiña hareik bestiak ikusi, ikusi eta ze denpora gutxixan, berak esaten nebena, azpizak ataraten ibilli zanian hemen Goittiko beziñuaz, Joxe Mari Goittikuakin, "horreik zer xabillei hemen? Hainbeste buetrak?" "Zer ibilliko xuei ba? Jan billa ibilliko (di)ttuk", "Bai, itxuria halaxe xakuei honeik". Eurok komestaziñua eballi baiña okurriu be ez. Ta bestiak baekixen Goittikuak txarrixak hilda egozela Txapelenian, baiña okurriu be ez hori. Eta gero bestiak fan zintzan, eta guriak be bai, guriak hamarretan edo bokau bat in eben ta gertatu ta esan dotsutena, fan bihar eben Agrariakora eta dentistiana be bai ta, lan batzuk eukan itteko eta hara fan bihar eben ta urten eben, baiña "por un churro" neuk momentu batetik bestera pasauko dok ta... Geroko egunetan, hemen etorri ziran zera Txema ta Txuma ta belenaz tratoriakin ta ume pilla bateaz etorri ziren bai, artearte hainbestian egon nintzan, ta orduantxe in nintzan emozionau, hainbeste jente auzokua ikusi barik bai, ta aurreko egunian neu bakar-bakarrak buetra zaharrokin eta oin honeik danok hemen. In nintzan emozionau, e? Hori zan Gabon egunian.

- Igaz?

- Igez, igez, igezko kontua da.

## **11. Araotzen ijitoak**

- **Erref:** ONA-057/017
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:50:08. **Bukatu:** 00:52:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

#### **Laburpena:**

Badira ijito-auzoak, ijito-herriak eta auzotar "bereziak" ere Araotzen.

### Transkripzioa

- Gero jaten (di)ttue buetrak txarrixok eta jittanuari kulpia bota.
- Jittanuari, ba, ba, guri jitto-herrixa esaten xaue honi ta, jitto-auzua edo jitto-herrixa ta, jittanuak gazela ta bai, bai, jittanuak gazek bai, Maria ta Jose.
- Jitto herrixa ze, honi auzouniari?
- Honi auzouniari esaten xauela jittanuen edo jittano edo jitto-herrixa.
- Jitto-herrixa?
- Bai, jitto-auzua honi, ta Ugaran edo, ha jitto-herrixa, hara jittano danak joten euen bai, ta jitto-herrikua ha.
- Ugaran jitto-herrixa... hau jitto-auzua.
- Ugaran jitto-herrixa eta Aratz Urruti jitto-auzua.
- Baiña hori ijittuak egoten ziralako?
- Holako zeozer izango zan, etorten zielako edo bertan egozelako ijittuak, jittano samarrak bertan egozelako, hor beste...
- Ijitto samarrak.
- Ijitto samarrak.
- Aratz Urrutikua beste kasta bat.
- Beste kasta bat, bai. Ba zu, horixe baiña ezta, Mañakuak... a ze barriak in nittuan nik baten, kilua gizendu nintzan, e! Mañako Azpiko Txikiñeko zela dako? Paula edo, Donostian bizi da, harek larogei urtetik gora bastante dako, hor Andarto azpixen han badau ba zera, Imanolen etxabolía edo, eztakit egon zarien sekula, hantxe. Ta komestaziñua etara dogu ta, ba, bera Araozgua bai baiña Mañakua, e! Mañakua. Ta "Maña ezta Araotz" edo, esaten otsala illobiak eta "Maña Araotz don baiña Mañakuak beste klase, beste raza bat gaittun baiña gu! Enda errekatik erre kara Arantzazukuak be ez gaittun, e!" Hareik Arantzazuarrak, berriz; hor bixan bittartekuak, hemen jitto-auzokua esaten dogun moduan han mañarrak berezixak ziela esan gura eben, ta haren esaerakin zenbat barre in neben nik. Holakotxe esaerak, haxe bai dala andria!
- Eta gu Lurgorritarrok nun sartzen gara ba, orduan?
- Zuek "como un cero a la izquierda", alde batetik eta bestekaldetik leheninguak.

## 12. Baserriko gauza zaharrak

- **Erref:** ONA-057/018
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:52:22. **Bukatu:** 00:57:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Lexikoa

### Laburpena:

Auzune asko, pitinka-pitinka husten doaz Araotzen. Baserri zahar batzuetan oraindik "lezipoto", "sugan-harri", "txisalo" eta urik gabeko harraskak ikus daitezke.

### Transkripzioa

- Ze auzune dakaz Araotzek?
- Auzuak? Aixkorbe ixixa hutsutu xaku. Ixixa Aixkorbe hutsutu da. Uxarten...
- Han Goittikuan egoten dira, ezta?

- Ez, fan da Maximo be.

- A, bai?

- Ardixak badako oinddion baiña harek entzun neben nik negar eta dana eragin otsan baten batzueiri. Felix hil da oin, Mielena, ta ha orduen geizki euen, ta "Felix lehen Felix neukan lagun hori ta oin hori berriz ez dala ba saniauteko bidetan ta derrigorrian ointxe bai fan biharrian izango naizela ni Aretxabaletara", esan nosten batzueiri. Oin Felix hil da. Lehengunien baten batek esan nontan fan dala, baiña ardixak badako oinddion hor zelaixen. Ta lehen urte askuen Aretxabaletatik etorri be in barik egon diran horreik, egon zien, ta oin berriz ya poza ta dana emuten eben behintzet beziño bat gehixago. Ta, gaiñera, aldiko bat eta aldiko bat eta aldiko bat hutsutu da Aixkorbe "del todo". Oin ikusten dotenian Azpikuan keia esaten dot Azpikuan baten bat bizi dok, keia baxak behintzet eta. Ba apur bat poztu itten zau.

- Bai, egunero etorten da baten bat, txakurra eta.

- Bai txakurra ta. Uxarte Garaikuan be hareik be, hemen bertan enpadronautakuak Txomeenak bakarrik, beste lon edo hori be ez dot uste dauenik.

- Lon nun biziko da, ba? lonek ez dako beste etxerik.

- Baiña ha amana faten da.

- Bai, baiña beti be bazkaittera. Bazkaldu itten dau amenian harek.

- Baiña enpadronauta hemen dau?

- Enpadronauta ez dakit.

- Ez dot uste.

- Egongo da, kredituak eta jasoteko egongo da.

- A bai?

- Egongo da.

- Ba entzun neben nik Txomeenak egozela bakarrik zerien. Elizondo be halako auzounia zan bai lehenao, "entre que" abaria, maestra, maestria, sakristaua, eskolia eta hau ta hori ta.

- Elizondo, han elizien...

- Bai, elizia inguruen, beziñorik hurrena Txomeena, gero Borjena ha hutsutu zan, baiña oin lonek okupauten dau; gero Antzuena, Errastikua, Uxarte Garaikua, Mantzena jausi in zan, Zeziñena ez neben nik ezagutu; oin Zeziñena in zan jausi eta jaso in daue Azpikuak eta Txomeenak erdibana eukein. Ta oin jaso in daue, teillatua in xaue.

- Ni han beharretan ibillitta nago.

- Bai, bai, ibillitta, ta zu han fijau ziñan sekula, neu egon barik neuen ta ha sukaldia? Lehengo sukaldia, fregaderia harrixa hau kolorekua, zera, harena harrixa, baiña baju-bajua, ondo indda bai e? Hargin kurioson batek indda euen, urik bako fregaderia, oin kantua kantaitten daue ba hor? Radiotik, ondiok pentsauten dogu lehenauko kontua dala ta, baiña ez oso urriña haiñian, neuk be ezagutu dot eta, fregadera urik bako fregaderia, ta hantxe euen, han egongo da oinddion be zeatik teillatua uste dot bakarrik in xauela eta. Eta gero lezipotua, eta sugan-harrixa, sukaldian daz. Ni behin egon naiz eta egon naiz oinddiok urte asko ez dala, holaxe Txomeenian. Txomeenak euki Elizondon bankete bat euken baten, Txomeenakin fan nintzan ta horixe Bergarako koñatiori ta han zerak, lonek han zelako barreria edo berjia in xaon, dotoria da, e? Haxe ikustera fan giñan ta eurak nola eukein han garajia Txomeenak, kotxia euen han ta hala ta ba hauxe dok lekua sekula egon ez naizena, Zeziñena-Zeziñena bai baiña sekula ez naiz egon, ta hantxe ikusi neben sugan-harrixa eta lezipotua ta fregaderako harrixa eta suen aurrekaldian zelako harri-losak. Losia bat "sobre todo"...

- Baiña hori egongo da Txomeenen aldetik ezta?

- Ez, Antzuenen aldera begira. Borjena dau Txomeen aldera, eta bestia

dau...

- Zeziñena badakit zein dan, barruan egonda nau, baiña zuk esaten dozuna nik ez neben ikusi, orduan ni sartu nintzan Azpikuak ebaltzen dauen aldetik.

- Ba Azpikuena sukaldia be.

- Bai?

- Bai, oinddion txixalua be han euen, txixalua esaten xakona bankua erderaz, txixalua ni han egon nintzanian han euen txixalua.

- Zeri esan dotsazu "txixalua"?

- Hori...

- Ez zara akordaitzen zerien, Baxilik zela esaten otsan, txixala? Guk txixaka esaten gotsan.

- Txixala. Ta lehenao oillalokiak txittak etarateko hantxe mahaipian ze azpitan bera barruan eta txittak kanpora urteten dauela, mahaittik behera jausten ziran ogi apurrak eta danak jaten, "todos socios", kaponeria edo esaten otsain.

### 13. Ume txikiei lo eragiteko kantak I

- **Erref:** ONA-320/004
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:02:52. **Bukatu:** 00:03:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

#### Laburpena:

Ume txikiei lo eragiteko abesten zitzaien kanta: "Trikili montañako...".

### 14. Ume txikiei lo eragiteko kantak II

- **Erref:** ONA-320/006
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:04:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

#### Laburpena:

Ume txikiei lo eragiteko abesten zitzaizkien zenbait kanta abesten ditu. "Horra, horra, Pepetxo...". "Txikirri montañako" hiru-lau bertsiotan abesten eizzen. "Txikitxo polit horrek".

### 15. "Atxian putxian" kanta

- **Erref:** ONA-320/008
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:05:17. **Bukatu:** 00:05:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

#### Laburpena:

"Atxian putxian" ume txikiei atzamarrekin jolas egiteko kantatzen zitzaien kanta.

## 16. `Ukabilitxo´ren ipuina

- **Erref:** ONA-320/010
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:07:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

### Laburpena:

`Ukabilitxo´ deitzen zioten neskatilaren inguruko ipuina.

## 17. Korroan egiteko kanta

- **Erref:** ONA-320/011
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:07:35. **Bukatu:** 00:09:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

Bere ama oso kantuzalea zen eta ondo abesten ei zuen. Auzoko ume guztiak elkartuta jolasean ipintzen zituen. Korroan egiten zuten "Andramaixeko tronpetan..." kanta.

## 18. Auzoko mutikoen "eskopetak" txikitu zituen amak

- **Erref:** ONA-320/012
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:09:11. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

Umeak zirela gertatutako pasadizoa. Auzoko mutikoen erreka ondoko lizar makilei sokak ipini eta "eskopetak" prestatu zituzten, gerra egin behar zutela eta. Mirenen amak makila guztiak txikitu zizkien, ez zuen gerra konturik entzun nahi eta.

## 19. Gurdiaren puntan eserita egiten zuten jolasa

- **Erref:** ONA-320/013
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:13:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena:**

Garai batean ez zegoen jostailurik. Gurdiaren puntan eseri eta "Txutxurrutxuka" jolasten ziren. Kanta ere abesten zuten: "Txutxurruku jauna...".

**20. Ilargiari abesten zitzaion kanta**

- **Erref:** ONA-320/015
- **Iraupena:** 0:00:16. **Hasi:** 00:13:59. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katak

**Laburpena:**

Ilargiari abesten zitzaion kanta: "Illatargi amandria, ze barri dakotzu?...".

**21. Amari ikasitako katak**

- **Erref:** ONA-320/017
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:14:32. **Bukatu:** 00:16:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katak

**Laburpena:**

Amak kantatzen zituen zenbait kantaren zatiak abesten ditu.

**22. Eskolan, euskarazko liburuak giltzapean**

- **Erref:** ONA-320/018
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:16:15. **Bukatu:** 00:17:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

Zenbait jolasen katak gaztelaniaz bakarrik dakizki. Euskaraz irakurtzeko gogoia izaten zuen umetan, baina eskolan euskarazko liburuak (´Xabiertxo´ eta ´Ixiartxo´) giltzapean izaten zituzten. Eskolan gaztelaniaz eta elizan euskaraz.

**23. Auzokoen kantuzaletasuna**

- **Erref:** ONA-320/020
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:17:14. **Bukatu:** 00:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

**Laburpena:**

Auzoko batzuen inguruko kontuak. Zumalde taberna itxi ostean ere auzoko gizon bat kafea hartzera joaten zen. Maria irteten bazitzaion, "Qué guapa estás Maria" kanta abesten zion eta Mari Cruz irteten bazitzaion, "Mari Cruz, maravilla de mujer" eta horren ostean "Yo te daré..." kafea eskatzeko, disimuloan,.

**24. Auzokoen arteko pasadizoa**

- **Erref:** ONA-320/022
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:19:48. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Auzokoen arteko pasadizoa. Auzoko emakume bat hagineko minez zegoen. Auzoko beste gizon batek mina kentzeko gomendatu ziona.

**25. Auzokoen arteko giroa**

- **Erref:** ONA-320/024
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:26:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Auzokoen arteko giroa. Edozein tontokeriarekin egiten zuten barre, orduan ez zegoen bestelako entretenimendurik eta. Zumalde taberna itxi eta gero ere asko joaten ziren hara, kafea hartzera. Bertako Mari Cruzei kontu-kontari pellak egiten ari zela geratutakoa.

**26. Praxak janztearren eta futbolearen aritzearren kargu hartu**

- **Erref:** ONA-320/025
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:26:22. **Bukatu:** 00:29:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena:**

Meza ostean neska-mutikoak futbolean ibiltzen ziren. Aitari berari kargu hartzeko esan zioten, "mari-mutikoen" antzera prakak jantzita ikusi zutela eta. Amak ere kargu hartu zion mutilekin futbolean ibiltzearren.

**27. Zotz egiteko kanta**

- **Erref:** ONA-320/026
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:29:01. **Bukatu:** 00:29:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena:**

Zotz egiteko kanta: "Sariberi..."

**28. Eskolan gaztelaniaz egin behar; jolasak**

- **Erref:** ONA-320/027
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:29:23. **Bukatu:** 00:31:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Euskarazko jolas-kanta asko ez dakizki, denak gaztelaniazkoak. Eskolan kargu hartzen zien maistrak, euskaraz eginez gero. Mutilak aparte ibiltzen ziren. Jolasean zebiltzala, auzoko mutiko batek pilota hilerrira bota zieneko pasadizoa.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-06-02*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com